

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



**Sexu- eta ugalketa-osasuna
eta eskubideak**

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak

Heziketa-modulu hau **Médicos del Mundo** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	4
2. Gai nagusiak	4
3. Gako-hitzak	4
4. Ikasketa-xedeak	4
5. Jardueren zerrenda	5
II - atala: Jarduerak	6
1. jarduera: Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko lehiaketa	6
• Testuingurua	6
• Gidoia	7
• Jarraibideak	9
2. jarduera: Harreman perfektua	10
• Testuingurua	10
• Gidoia	11
• Jarraibideak	13
3. jarduera: Sexu- eta ugalketa-eskubideak	14
• Testuingurua	14
• Gidoia	14
• Jarraibideak	15
Saioaren egitura	17
Moduluen zerrenda	19

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Ugalketa-osasuna eta eskubideak 1994an Kairon egindako Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian (BGNF) aitortu ziren ofizialki eta honela definitu ziren: “ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera, eta ez ugalketa-gaixotasunik edo ondoezik ez edukitzea soilik”. Horrek esan nahi du “jendeak aukera duela sexu-bizitza asebetegarria eta segurua izateko eta gai direla ugaltzeko, baita hori nahi duten, noiz eta zenbatetan nahi duten erabakitzeko ere”. Gainera, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziak gomendio hau eman zuen: “Informazioak eta zerbitzuek eskuragarri egon behar dute nerabeentzat, beren sexualitatea uler dezaten eta nahi gabeko haurdunaldietatik, sexu-transmisiozko gaixotasunetatik eta antzutasun-arriskutik babesteko. Horrekin batera, mutil gazteak hezi beharko lirateke emakumezkoen autodeterminazioa errespetatu dezaten eta emakumezkoekin parteka dezaten sexualitatearekin eta ugalketarekin lotutako erantzukizuna”¹. Nazio Batuek urtebete beranduago Pekinen ospatutako Emakumearen Munduko Laugarren Konferentzia izan zen sexu-eskubideen kontzeptua honela jaso zuen lehenengo adierazpena: “Emakumeek bere sexualitatearekin, sexu- eta ugalketa-osasuna barne, lotutako gaitan kontrola edukitzeko eta askatasunez eta arduraz erabakitzeko dituzten eskubideak, hertsadurarik, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabe”².

Osasunaren Mundu Erakundeak Europako 25 herrialdetan egindako inkesta baten arabera, 15 urteko nerabeen % 20k sexu-harremanak izan ditu³. Gazte gehienak sexualitatearen inguruko mezu gatazkatsu, negatibo eta nahastuekin heltzen dira nerabearora; askotan, mezu horiek are gehiago nahasten dira iturri fidagarriak ez dutelako –adiskideengandik eta Internetetik eskuratzen dute. besteak beste, informazioa–, eta horri gehitu behar zaio helduek lotsa sentitzen dutela eta ez dietela erantzunik ematen, horrelako gaiei buruz hitz egiteko gai sentitzen ez direlako. Gainera, gizarte-arauek eta genero-desberdintasunak eragina dute mutilek eta neskek sexualitatearekiko eta sexu-jokabide arriskutsuekiko duten jarreran. Modulu honek arreta jartzen du sexualitatearen eta ugalketa-osasunaren inguruan dauden mitoak eta errakuntzak argitzean eta nerabeen artean horren inguruko ezagutza areagotzean: metodo antikonzeptiboak, sexu-transmisiozko gaixotasunetatik babestea eta horien prebentzioa, GIB eta nahi gabeko haurdunaldiak.

¹ UNFPA, *Programme of Action, International Conference on Population and Development*, Cairo, 1994, (Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa), Kairo, 1994; online eskuragarri hemen: https://www.unfpa.org/sites/default/files/pub-pdf/programme_of_action_Web%20ENGLISH.pdf

² NBE, *The UN IV National Conference on Women, Platform for Action*, Action (NBEren Emakumeei buruzko IV. Konferentzia, Ekintzarako Plataforma), Pekin, 1995; online eskuragarri hemen: <https://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/platform/health.htm>

³ Federal Centre for Health Education, BZgA and the International Planned Parenthood Federation European Network (commissioned by) (enkarguaren egileak: Osasunari buruzko Heziketarako BZgA Zentro Federala eta Familia-plangintzaren Nazioarteko Federazioaren Europako Sarea), *Sexuality Education in Europe and Central Asia. State of the art and recent developments, An overview of 25 countries*, (Sexu-heziketa Europako eta Asia Erdialdean. Artearen egoera eta azkenaldiko garapenak, 25 herrialderen ikuspegia); online eskuragarri hemen: https://www.ippfen.org/sites/ippfen/files/2018-05/Comprehensive%20Country%20Report%20on%20CSE%20in%20Europe%20and%20Central%20Asia_0.pdf

Horrez gain, moduluaren beste xede bat da gazteak animatzea nahi dutena aske eta modu irekian adieraz dezaten beren buruarekiko konfiantza garatuz, beren gorputza eta gorputz-aniztasuna onartuz eta sexualitatearen zein ugalketaren inguruan dituzten zirrarak zein beldurrak identifikatuz. Aldi berean, moduluak gazteen sexuarekin eta ugalketa-osasunarekin lotutako komunikazio- eta negoziazio-gaitasunak lantzen ditu, gai izan daitezen adiskideen presioari aurre egiteko, sexu-transmisiozko gaixotasunak eta nahi gabeko haurdunaldiak saihesteko eta sexu-harremanak noiz eta norekin izan nahi dituzten erabakitzeke.

Proposatutako jarduerekin, parte-hartzaileek aukera dute gizarte- eta genero-arauek beren sexu- eta ugalketa-osasunean, sexu-adierazpenean eta sexu-jokabide arriskutsuan nola eragiten duten hausnartzeko.

2. Gai nagusiak

- Sexu-osasuna eta eskubideak
- Sexualitatea
- Ugalketa-osasuna eta eskubideak.
- Sexualitatearen inguruko gizarte-arauak eta genero-estereotipoak
- Sexu-adostasuna
- Sexu-transmisiozko gaixotasunak (STG)
- Sexu-transmisiozko infekzioak (STI)
- Gorputz-aniztasuna
- Metodo antikonzeptiboak
- Familia-plangintza

3. Gako-hitzak

Sexu- eta ugalketa-osasuna • Sexualitatea • Sexu-eskubideak
Sexu-hurbilketa positiboa • Hertsadura • Familia-plangintza

4. Ikasketa-xedeak

- Giza sexualitatea eta pubertaroa ulertzea.
- Nahi gabeko haurdunaldiak, GIBaren arriskua eta bestelako sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzea edo murriztea.
- Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko pentsamendu kritikoa eta komunikazio- zein negoziazio-gaitasunak sustatzea.
- Errespetuzko harreman osasuntsuak eraikitzea.
- Sexu-harremanetan genero-estereotipoei aurre egitea.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ⁴
1	Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko lehiaketa	45 minutu	• Hitz-kontzeptuzko txartelak • Arbela eta errotuladoreak • Hitzen eta definizioen	★ ★ ★
2	Harreman perfektua	45 minutu	• Mota desberdinetako koloretako paperak • Ehun/oihal desberdinak • Kolore desberdinetako artilea • Artaziak • Itsasgarria • Aldizkariak eta egunkariak • Koloretako arkatzak, errotuladoreak eta margoak • Soka, haria, eraikuntzarako itsasgarria, pintzelak, lumak, satinezko zinta, lentejuelak, kartoi mehea, kartoia, aparrezko nukleoa, orratzak, kortxoa, plastilina, koloretako kotoi-biribilkia • Arbela eta errotuladoreak	★ ★ ★
3	Sexu- eta ugalketa-eskubideak	45 minutu	• Arbela eta errotuladoreak	★ ★ ★

⁴ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, “oso gomendagarria” den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

I. jarduera Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko lehiaketa ★★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu

Prestatzea: 5

Egitea: 30

Segimendua: 10



Materialak

- ☐ Hitz-kontzeptuzko txartelak
- ☐ Arbela eta errotuladoreak
- ☐ Hitzen eta definizioen zerrenda

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen xedea bikoitza da:

- Sexu- eta ugalketa-osasunari eta eskubideei (SUOE) buruzko kontzeptu nagusiak deskribatzea.
- Sexu- eta ugalketa-osasunari eta eskubideei (SUOE) buruzko errakuntza eta mitobatzuk zalantzan jartzea.

Jarduera hau aukera bat da parte-hartzaileek SUOEi buruz dakitenaren inguruan hausnartzeko eta kontzeptu horien inguruko ezagutza edo ulermenean izan ditzaketen gabeziak identifikatzeko, sexu-transmisiozko gaixotasunei buruz -GIB barne-, metodo antikonzeptiboei buruz eta gorputzaren eta sexuaren segurtasunari buruz.

Tailerrean parte hartzen dutenen adinaren arabera, zenbait kontzeptu aukeratuko ditugu proposatutako zerrendatik.

→ GIDOIA

Jarduera hau sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko lehiaketa bat da eta hau da haren funtsa: ezagutza gazteen ikuspegitik eraikitzea, gai honekin lotutako kontuen inguruko ulermen hobea izan dezaten. Jolasteko, SUOEekin lotutako hitz-kontzeptuak dituzten txartelak (edo paperak) erabiliko ditugu.



Parte-hartzaileei eskatuko diegu hiruzpalau talde sortzeko eta talde bakoitzari 15 kontzeptu-txartel emango dizkiogu. Hala, 15 minutu izango dituzte kontzeptuen esanahia eztabaidatzeko eta horiek beren hitzekin definitzeko.



Horrez gain, taldeek dakizkiten kontzeptuen sinonimo guztiak idatziko dituzte, formalak, informalak edo argot-hizkuntzakoak diren gorabehera.



Behin amaituta, jolasa hasiko da. Talde bakoitzak ordezkari bat hautatuko du taldearen izenean erantzuteko.



Kontzeptu-txartel bat irakurriko dugu eta lehendabizi esku-zarta jotzen duen taldeak izango du aukera elkarrekin egin duten definizioa eta sinonimoak irakurtzeko. Emandako definizioa zuzena bada, taldeak puntu bat irabaziko du. Zuzena ez bada, eskuineko taldeak izango du erantzuteko aukera eta, horrela jarraituko dute, talde batek definizio zuzena eman arte.



Sinonimo guztiak (argota eta familia-izenak) eta parte-hartzaileek nahi dutena gehitzeko eskatuko diegu definizioa osatze aldera. Gainerako kontzeptu-txarteekin jarraituko dugu.



Puntu gehien dituen taldeak irabaziko du.

Parte-hartzaileek ondo definitzen ez duten kontzeptu bat egotekotan, brainstorming bat egingo dugu laguntzeko. Asmoa da adostutako kontzeptu zuzenen eta horien sinonimoen zerrenda bat edukitzea.

GORPUTZA	STG	METODO ANTIKONTZEPTIBOAK	SEXUA
• Aknea • Amenorrea • Areola • Titiburuak • Barrabilak • Bagina • Erektzioa • Ipurmasailak • Umetokia • Klitoria • Zakila • Semen • Eiakulazioa • Menstruazioa • Biguna • G puntua • Bulba • Himena • Ezpainak • Menopausia • Obarioa • Obulazioa • Orgasmoa • Amets hezea • Hilekoaren aur-reko sindromea (HAS) • Prostata • Eskrotoa • Esperma • Tanpoia • Barrabilak • Titiak • Testosterona	• Chlamydia • GIB • Hiesa • GIB frogia • Garatxo genitala • Pubis-zorriak • Giza papilomabirusa (GPB) • Gonorrrea • Herpes genitala • C hepatitis • Hazteria • Sfilisa • Trikomoniasia	• Kondoia • Emakumezko-entzako preserbatiboa • Biharamuneko pilula • Pilula • Baginako eraztuna • Umetoki barneko gailu (UBG) • Diafragma • Injekzio anti-kontzeptiboa • Esterilizazioa • Kanpoan hustea • Espermizida METODO IRAUNKORRAK ETA ITZULEZINAK • Basektomia • Tronpen lotura BESTELAKOAK • Abortua	• Masturbazioa • Felazioa • Cunnilingus • Kontsolagarria • Larrua jo • Amodioa egin • Idiarena jo • Busti • Bero • Inpotentzia • Adostasuna • Labaingarria • Libidoa • Petting-a • Birjina • Pornoa • Sexu anala • Sexu segurua

→ JARRAIBIDEAK

Jolasaren ostean, galdera hauek egingo dizkiegu parte-hartzaileei:



- Nola sentitu zara jarduera egitean?
- Zeintzuk izan dira definitzeko kontzepturik zailenak? Eta zeintzuk izan dira errazagoak? Zein motatako kontzeptuak definitu dira ondo? Zein motatako kontzeptuak definitu dira gaizki?
- Ba al dago neskek edo mutilek hobeto ezagutzen duten kontzepturen bat? Eta zergatik? Nola islatzen dira hizkuntzan jarrera kulturalak, sozialak eta sexualak?
- Zer irakasten digu hizkuntzaren erabilerak sexuarekiko ditugun jarrerei dagokienez?
- Zein desberdintasun dago gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako erabiltzen ditugun hitzen artean? Gizonek eta emakumeek hitz desberdinak erabiliko lituzkete? Hala bada, zergatik? Iraingarria al da hitz horietakoren bat? Zeintzuk?
- Ba al dago besteak baino oldarkorragoa den hitzik? Hala bada, zeintzuk?

Parte-hartzaileen esperientzia, ezagutza eta ulermena oso desberdinak izan daitezke; horregatik, azalpen bat eman beharko dugu sexu-transmisiozko infekzioekin eta gaixotasunekin, antikonzeptiboekin eta sexu-segurtasunarekin lotutako hitz-kontzeptu eta gai guztiak laburtzeko eta argitzeko. Horregatik, gomendagarria da hitz-kontzeptuekin jorratuko dituzten gaien gaineko azalpen bat prestatzea.

Garrantzitsua da sexu- eta ugalketa-osasunarekin lotutako mitoak eta errakuntzak argitzea eta parte-hartzaileek hitzak ulertzen dituztela eta une oro eroso sentitzen direla bermatzea.

Honakoarekin lotu ditzakegu hitz-kontzeptuak:

- **Gorputza:** Gorputz-aniztasuna, nork bere buruarekiko konfiantza, gogoia, pubertaroko aldaketak, norberaren esplorazioa.
- **Sexu-transmisiozko gaixotasunak eta metodo antikonzeptiboak:** norberaren babesa, negoziazioa, sexu segurua, informaziorako eskubidea.
- **Sexua:** adostasuna, taldekoen presioa, negoziazioa, desira.

2. jarduerak Harreman perfektua ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu

Prestatzea: 5

Egitea: 25

Segimendua: 15



Materialis & Baliabideak

- ☐ Mota desberdinetako koloretako paperak
- ☐ Hainbat ehun/oihal
- ☐ Hainbat koloretako artilea
- ☐ Artaziak
- ☐ Itsasgarria
- ☐ Aldizkariak eta egunkariak
- ☐ Koloretako arkatzak, errotuladoreak eta margoak
- ☐ Soka, haria, eraikuntzarako itsasgarria, pintzelak, lumak, satinezko zinta, lentejuelak, kartoi mehea, kartoiak, aparrezko nukleoa, orratzak, kortxoak, plastilina, koloretako kotoi-biribilkia
- ☐ Arbela eta errotuladoreak
- ☐ *The Truth About Desire (Yrs 9 & 10)* bideoa (Desrirari buruzko egia 9 & 10 urte)⁵

aukerako

→ TESTUINGURUA

Sexu-desira ez da soilik esperientzia fisikoa; izan ere, faktore emozionalek eta sozialek eragiten diote. Gazteen artean, mito asko daude eta informazioa falta zaie eta horrek sexu-esperientziarekin zein sexu- eta ugalketa-osasunarekin lotutako esperientzia negatiboak edukitzea eragiten du.

Jarduera honen **helburua da sexuala izatea bizitzaren gauza ona dela nabarmentzea** eta ez haurdunaldiaren edo STGen arriskuak azpimarratzea. Puntu horretatik hasita, errazagoa da gazteak kontzientziazatzea sexu-harremanak edukitzeko, pertsona biak egon behar direla ados, biek disfrutatu behar dutela eta biek erabakitzen dutenean gertatu behar direla. Era berean, jarduerak gizarte-mezuetan gizonezkoen eta emakumezkoen sexualitateari buruz dauden estandar bikoitzak aztertzen ditu.

Jarduerak teknika artistiko bat baliatzen du batzuetan zaila izaten delako nerabeekin sexuari eta harremanei buruz hitz egitea. Oso garrantzitsua da jarduera hau modurik irekienean eta informalenean burutzea. Erlaxazio-teknika batekin has gaitezke eta giro-musika apur bat erabil dezakegu sormen-prozesua errazteko.

→ GIDOA

Giroko musika lasaigarria erabil dezakegu parte-hartzaileak bidaian zehar gidatzeko.



Hasi baino lehen, gelaren erdialdean kokatuko ditugu jardueraren bigarren parterako sormen-materialak.



Hitz hauek erabil edo irakur ditzakegu sormen-irudikatze hori errazteko:

Erabil edo irakur:

Eseri hankak gurutzatu gabe, jarrera eroso batean eta eskuak zure izterretan jarri. Begiak itxi. Sakon hartu arnasa sudurretik eta sabeletik bost segundoz (zure bularraldea oso gutxi mugitu behar da). Bi segundo itxaron eta gero, zure ahotik bota airea bost segundoz. Gauza bera errepikatu 5 aldiz.

Zure sexu-topaketa ideala irudikatu eta orain gertatuko balitz bezala ikusi zeure buruan; zer ikusten duzu? Non zaude? Lekua ezagutzen duzu? Egon al zara inoiz bertan? Barruan edo kanpoan zaude? Non zaude? Zure logelan, beste norbaiten etxean, baso batean, hondartzan? Zer entzuten duzu? Zer usaintzen duzu? Nola sentitzen zara irudi horretan? Nor dago zurekin? Pertsona horren aurpegia eta gorputz-hizkuntza irudikatu. Pertsona horren gorputz-hizkuntza irudikatu: barrezka ari da, serio, hitz egiten edo entzuten? Nola sentitzen zara? Giroa zoriontsua ala iluna da? Giroa zatatsua ala lasaia da? Beroa ala hotza? Saiatu eta lurrinak usaindu, airea dastatu, soinuak entzun.

Orain, zure buruaren ikuspegitik, imajina ezazu pertsona horrekin berbetan ari zarela. Zer egiten ari zara? Nola erantzuten du pertsona horrek? Irekia edo isila izaten ari zara? Txantxetan ari zara ala oso serio zaude? Elkarrekin barrezka ari zarete ala serio zaudete? Ondo pasatzen ari zara? Seguru eta eroso sentitzen zara ala urduri? Azken aldiz aztertu lekua eta zurekin dagoen pertsona eta gogoratu zure sentimenduak eta zirrarak. Esaiozu agur eszenari eta, apurka-apurka, ireki begiak eta itzul zaitez gelara. Gorde zure sententzioak eta gelako leku bat aukeratu jardueraren hurrengo pausorako: bizi izandako esperientziaren inguruko artelan bat edo collage bat sortu. 15 minutu dituzu hori egiteko.

⁵ Australian Research Centre in Sex, Health and Society (Sexuari, Osasunari eta Gizarteari buruzko Australako Ikerketa Institutua), *The Practical Guide to Love, Sex & Relationship: The Truth about Desire (Yrs 9 & 10)*, (Maitasunari, sexuari eta harremanei buruzko gida praktikoa: Desrirari buruzko egia 9 & 10 urte); online eskuragarri hemen: https://www.youtube.com/watch?v=0Bl7H0aB0ew&list=PL0irFmn7kd7kSjB8F9eGJ_ZEI5Q-7kpl&index=4



Behin amaituta, gelako hormetan jarriko ditugu artelanak eta parte-hartzaileei eskatuko diegu horietara hurbiltzeko, artelanak azter ditzaten. Parte-hartzaileak artelanak aurkeztera gonbidatuko ditugu.

Laburbiltzeko, eztabaida bat sortuko dugu honako galdera hauek eginez:

- Nola sentitu zara jarduera egitean?
- Uste duzu egoera erreala izan zitekeela? Zergatik?
- Sexu-babesa erabiltzea imajinatu duzu? Hala bada, zein? Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?
- Artelanetan, nola islatzen da gizonezkoen sexu-desira?
- Artelanetan, nola islatzen da emakumezkoen sexu-desira?
- Zeintzuk dira artelanen arteko antzekotasunak?
- Zeintzuk dira artelanen arteko desberdintasunak?
- Zure ustez, zer nolako lotura dute desberdintasun horiek gizonek eta emakumeek jasotako heziketarekin?
- Nola definituko zenituzke sexu-desira eta sexualitatea?
- Gizonezkoek zein emakumezkoek sentitzen al dute sexu-desira?
- Ba al dago sexu-orientazioaren arabera alderik edo antzekotasunik?
- Ba al dago genero-identitatearen arabera alderik edo antzekotasunik?

→ JARRAIBIDEAK

Jarduera amaitzeko, talde osoa elkartuko da eta parte-hartzaileek beren esperientziak zein iritziak partekatuko dituzte. Parte-hartzaileei lagunduko diegu genero-desberdintasunak aurkitzen eta sexu-desiraren inguruko mitoak eta horiek gure identitateetan eta harremanetan duten eragina aztertzen. Parte-hartzaileek sexu-mitoen eta estandar bikoitzen existentzia eta boterea identifikatuko dituzte, adibidez, hauenak⁶:

- Nesken beldurra eta ondorioak puta edo frigido gisa sailkatuak izatearen aurrean.
- Mutilek jasaten duten presioa sexua edukitzeko gizonezkoen arteko adiskidetasunaren eta taldeko kide izatearen izenean.
- Mutilek sexua behar dute eta neskek, besterik gabe, hori jasaten dute.
- Sexua “partekatutako esperientzia” baino gehiago, “egin beharreko” esperientzia bat da

Eztabaida zuzentzerakoan, ideia hauek hartu beharko ditugu kontuan:



- Gizonezkoek zein emakumezkoek dituzte sexu-desirak eta guztiek sentitzen du sexu-kitzikadura.
- Gizonezkoek zein emakumezkoek senti dezakete sexu bereko pertsonekiko erakarmena.
- Sexu-topaketaren eta sexualitatearen arteko desberdintasunak ezagutzearen garrantzia.

Denbora nahikoa egonez gero, *The Truth About Desire* bideoa erabil dezakegu jarduerari amaiera emateko.

Horrez gain, parte-hartzaileek pornoari buruz hitz egitekotan, azaldu dezakegu porno-produkzioetan islatutako sexu-jokabideak ez direla benetako bizitzako sexuaren isla. Izan ere, azaldu diezaiekegu horrek etsipena eta errealistak ez diren itxaropenak sor diezazkiekeela, besteak beste, modu zehatz batean “jokatu” behar dela edo klimaxa lortu beharra dagoela sexu-topaketa batean.

⁶ Australian Research Centre in Sex, Health and Society (Sexuari, Osasunari eta Gizarteari buruzko Australako Ikerketa Institutua), *The Practical Guide to Love, Sex & Relationships: The Truth About Desire (Yrs 9 & 10)*, (Maitasunari, sexuari eta harremanei buruzko gida praktikoa: Desirari buruzko egia 9 & 10 urte); online eskuragarri hemen: <https://static1.squarespace.com/static/5678f534d8af10364e1c847f/t/56b2b37f0442624cfad68c6d/1454551958164/Topic+4+%E2%80%93+The+truth+about+desire.pdf>

3. jarduera Sexu- eta ugalketa-eskubideak⁷ ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu

Prestatzea: 5

Egitea: 35

Segimendua: 15



Materialak

□ Arbela eta errotuladoreak

→ TESTUINGURUA

Hauek dira jarduera honen xedeak:

- “Ezetz” esatean sentitzen digun zirrarak eta sentimenduak identifikatzea.
- Maitasun-sexu harremanetan presiozko esaldiak eta egoerak aitortzea.
- Adostasuna “baietz” esplizitu gisa ulertzea.
- Kondoia erabiltzearen eta babesaren garrantziari buruz hausnartzea.
- Sexu- eta ugalketa-babeserako adostasunaren garrantzia ulertzea.

→ GIDOIA



Zenbakitutako 12 orrialde emango dizkiogu parte-hartzaile bakoitzari eta behean aurkeztutako “adierazpen hertsatzaileak” irakurriko ditugu.



Taldeko kideei eskatuko diegu esaldi bakoitzarentzako balizko erantzun bat idazteko orrialdeetan. Behin amaituta, erantzunak bildu eta ordenatu egingo ditugu esaldi bakoitzaren zenbaki korrelatiboaren eta dagozkion erantzun ugarien arabera.



Ondoren, parte-hartzaileak taldetan banatu eta esaldiak eta erantzun desberdinak emango dizkiogu talde bakoitzari. (1. taldea: 1etik 3ra bitarteko esaldiak; 2. taldea: 4tik 6ra bitartekoak; 3. taldea: 7tik 9ra bitarteko esaldiak eta 4. taldea: 10etik 12ra bitartekoak).

⁷ Honen egokitzapena: Salud Sexual (Sexu-osasuna), *Drets sexuals i reproductius: material didactic ad recat a professionals que treball en amb joves mayores de 16 anys*, (Sexu- eta ugalketa-eskubideak: 18 urtetik gorako gazteekin lan egiten duten profesionalei zuzendua); online eskuragarri hemen: <http://salutsexual.sidastudi.org/>



Talde bakoitzak bere esaldiak eta erantzun posibleak irakurriko ditu eta honako galderei buruz hausnartuko dute:

- Norbaitek esan al dizu inoiz antzeko zerbait? Nola sentitu zinen?
- Inoiz esan al duzu antzeko zerbait? Nola sentitu zinen?
- Zergatik erabili beharko zenuke esaldi hori?



Talde bakoitzak erabakiko du zein den esaldi bakoitzarentzako erantzunik onena eta zergatik. Osoko bilkuran, talde bakoitzeko pertsona batek azalduko du zeri buruz hitz egin duten eta zeintzuk diren atera dituzten ondorioak. Honako gai honen inguruko eztabaida bat sortuko dugu: sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak, hertsadura, gizarte-arauak eta genero-estereotipoak.

Adierazpen hertsatzaileak:

1. Maite baninduzu, egingo zenuke.
2. Mesedez, bakarrik oraingoan, ez da gauza bera sentitzen kondoiarekin.
3. Ni bezain gogotsu zaude zu.
4. Mundu guztiak egiten du; zure lagun guztiek egin dute dagoeneko.
5. Egiten ez badugu, beste norbait bilatu beharko dut.
6. Ez kezkatu, haurdun geratzen bazara, konponbideren bat bilatuko dugu.
7. Ez zara nitaz fidatzen? Aterako dut.
8. Hazi behar duzu; ezin zara betiko haur bat izan
9. Tira, gustatuko zaizu.
10. Ez zaitez leloa izan, GIB beste garaiko kontu bat da.
11. Zergatik hasi zara ez bazenuen egin nahi?
12. Apur bat gehiago edaten badugu, ez dugu lotsarik sentituko.
13. Ez iezadazu hori egin, mesedez.
14. Seguru nago aurretik beste norbaitekin egin duzula.
15. Ez daukat kondoirik.

→ JARRAIBIDEAK

Honako ideia hauek hartu beharko ditugu kontuan jardueraren osteko eztabaida gidatzerakoan:



- Komunikazioa sexu-harremanen alderdi garrantzitsu bat da; izan ere, komunikazioak bermatzen du norbanakoak baimena emateko aske sentitzen direla eta sexu-jardunbide seguruagoak negoziatzeko gai direla.
- Genero-rolek eta kultura-ereduek gure komunikatzeko moduan eta sexu-jardunbide seguruak negoziatzeko gaitasunean eragiten dute.
- Garrantzitsua da parte-hartzaileei eskuragarri dituzten metodo antikonzeptibo guztien inguruko informazioa ematea eta sexu-transmisiozko infekzioetatik eta nahi gabeko haurdunaldietatik babesteko egokienak zeintzuk diren jakinaraztea.

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Sexu-eta ugalketa-osasuna eta eskubideak

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____ / ____ / ____ Iraupena: _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

[illegible]

MODULUEN ZERREDA

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 **Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak**
- 12 Sexu-indarkeria

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua